

# Nazioen Europa, ala Europako Nazioa

**Anthony D. Smith**

*Journal of Peace Research*, 30. bol., 2. zb. 1993ko maiatza

Itzultzailea: Joseba Ossa

Nazionalismo etnikoek munduan zehar azken urteotan hartu duten indar berria azaltzen saiatzen da artikulua. Erantzuna bilatzean abiapuntu ondokoa da: nazioak osatzeko aukerak dituzten taldeek muinean komunitate etniko esanguratsua dute eta hauetako populazioak sentimendu eta helburu amankomunak ditu. Europari dagokionean, ez du ikusten honek oinarri etniko segururik duenik ez eta oroipen historiko, mito, sinbolo, balio eta antzeko elementu amankomunezko oinarri garbirik.

The article tries to explain the new power ethnic nationalisms ultimately have got for the last years. The starting point for the answer of this phenomenon is the following: groups which have possibilities to create nations count on a significant ethnic community, and these kind of populations have common sentiments and aims. Respecting Europe, it doesn't seem it has neither sure ethnic bases nor historical memory, symbol, value nor a clear similar common basic element.

## 1. Interdependentziaren paradoxa

Azken urteotan gero eta sakonagoa den paradoxa bat nabarmendu da mundu modernoan. Alde batetik industrialismoak, kapitalismoak eta masa-komunikabideek sortu duten mundua dugu: elkarren menpeko diren estatu eta nazioak, turismo masiboa, komunikabideen sare erregionalak<sup>1</sup>, nazioarteko lan banaketa, mundu mailako merkatuak, epidemia masiboak, terrorismo globala<sup>2</sup>, eta antzeko fenomenoak. Beste aldetik, izugarri ugaritu dira munduan protesta-mugimenduak, antagonismo sozialak, zatiketa etniko eta erlijiosoak, eta batez ere kontinente guztietan ikus daitezkeen nazionalismo etnikoak. Azken urteotan mugimendu horiek zenbait estatu desagertarazten eta estatu nazional berriak sortzen lagundu dute, estatuarteko ordenaren mapak aldi luze batean ezagutu duen egoera egonkorra irauliz. Nola uler dezakegu egoera hau? Garapen berri samarren ondorio ote da? Edo, aitzitik, mende honen hasierara –edota urrutirago– jo beharko dugu argitasun bila? Ba ote dago egungo eszenatokian ezer, egoera paradoxiko honetan aldaketa erradikala iradokitzen duenik?

## 2. Identitate nazionalen sustraien sakontasuna

Gaur egungo Gizarte Zientzien alorreko komunitatean modan dago identitateen malgutasuna eta giza-taldeen arteko muga aldakortasuna azpimarratzea. Kontua ez da soilik guk denok

identitate bat baino gehiago dugula. Gertatzen dena da aro moderno eta iheskor honetan identitate horien mugak arinago aldatzen direla iraganeko aldi egonkorragoetan baino. Eta horren zergatia hauxe da: lehen isolaturik zeuden komunitateetan gertatutako aldaketei esker (bidaiak, komunikazioak, irakurketa eta estatuaren interferentzia) orain jende gehiagok bizitzen dituela egoera eta zirkunstantzia desberdinak. Gaur egun kontzienteagoak gara geure identitate sexual, erregional, etniko, erlijioso eta klasekoaz gure arbasoak zirena baino, eta garbi ikusten dugu nahiko erraz mugi gaitzkeela “ni” edo identitate horietako batetik bestera. Baina bada are eta esanguratsuagoa den beste zerbait ere: orain askok beren identitatea eraikitzeke gaitasunari buruz duten kontzientzia, hau da, badakitela belaualdi eta populazio bakoitzak bere identitatea eraikitzeke gaitasuna duela, sinbolo eta oroipen eskuragarrietan oinarriturik. Beste hitz batzuetan esanda, norbanakoek gaitasun handia dute gaur egun beren komunitate propioak sortzeko eta nahi duten identitate kultural kolektiboa eraikitzeke.

Baina benetan ote dute horretarako gaitasunik? Noraino manipula daitezke identitate etniko eta nazionalak? Benetan gai ote gara komunitate etnikoak “eraikitzeke” eta nazioak “asmatzeko”? Hor nolabaiteko “komunitate imajinatua” ikusiko ote dugu, pertsona batzuek birraurkitu eta besteei deskribatzen dieten komunitatea (Anderson 1983)? Eta horrek zer esan nahi du, afiliazio

1. Erregio hitzak ingelesez eta euskaraz dituen eremu semantikoak desberdinak dira. Gurean estatu barneko banaketa administratiboak edota estatuak baino txikiagoak diren lurraldeak adierazteko erabili ohi da. Ingelesez, ordea, munduko zati zabalak izendatzeko erabiltzen da, estatuak baino handiagoak diren entitateak, alegia. Ingelesezko *region* kontzeptuaren baliokiderik ez dugunez, lan honetan *erregio* hitzari eutsi diot, argitasunaren mesederako izango delakoan (Itz. oh.).

2. Ingelesez *global* hitza mundu mailako fenomenoak deskribatzeko erabiltzen da. Euskaraz maiz *nazioarteko* adjektiboaz itzuli ohi da, baina horrek ez du leialki isladatzen haren esanahia. Beraz, artikulu honetan *global* hitzari eutsi diot euskaraz ere (Itz. oh.).

eta identitate multzo jakin bat utzi eta beste bat har dezakegula? Eskoziar edota daniar identitateari uko egin eta britainiarra edo eskandinaviarra geureganatu? Edo, areago, identitate europarra eskuratu?

Ikuspegi horrek zenbait zailtasun planteatzen ditu. Egia da norbanakoak identitate bat baino gehiago duela, eta hainbat komunitate desberdinetako kide dela aldi berean, baina hala eta guztiz ere, horrek ezer gutxi esaten du identitate eta komunitate horien arteko erlazioei eta euren arteko lehentasunei buruz. Bigarrenik, gero eta pertsona gehiagok identitatez aldatzeak ere ezer gutxi esaten du identitate horien izaeraz eta iraunkortasunaz. Judutar askoren kasuan, adibidez, mendeetan zehar beste zenbait erlijiotara bihurtarazteak edota hiltzeak ez zuen aldatu haien identitatearen oinarritzko izaera; ezta desagertarazi ere. Hirugarrenik, identitate eraikiaren eta komunitate imajinatuaren ideiak ez du kontutan hartzen lotura horietan guztietan garrantzitsua den elementu bat: halabeharra. Bai, lotura horiek ez dira erabat aukerazkoak, nahiz eta epe luzera identitatea alda daitekeen (hala ere bistan da, Amerikan adibidez, zenbat denbora behar den identitate etniko europar zaharrak desagertzeko eta identitate nazional estatubatuar soilaz ordezkatzeko). Fredrik Barth-ek (1969) azpimarratzen zuen etnizitatearen muga-osagaiak argi eta garbi adierazten du zeinen iraunkorrak eta sakonak diren identitate etniko eta nazionalak. Eta azkenik, hortxe dago grinaren arazoa: zergatik egon beharko luke jendeak hain konprometuta eta zergatik bizi ditu halako grina sutsuz gai hauek (komunitate etnikoa eta nazioa) hiltzeko prest egoteraino, baldin eta imajinazioaren eta borondatearen eraikuntzak besterik ez badira?

Bada, ordea, gaur egungo gizarte zientzien ortodoxiari planteatzen zaion beste eragozpen bat, aurrekoak baino askoz sakonagoa eta funtsezkoagoa. Honako galdera hau egiten dugunean «*Zeintzuk dira nazioak osatzen dituzten komunitateak?*» garbi ikusten dugu erantzunaren gakoa oinarri etniko aurre-modernoan datzala. Bestela esanda, nazioak osatzeko aukerak dituzten taldeek bi baldintza hauek betetzen dituzte: alde batetik muinean komunitate etniko esanguratsua izatea, beren oroi-pen, sinbolo, mito eta tradizioz horniturik, eta bestetik populazioak sentimendu eta helburu amankomunak izatea.

*Komunitate etniko* edo *etnia* hitzak erabiltzen ditudanean giza-populazio jakin bat adierazi nahi dut, ondorengo elementu hauez hornitua: iragan amankomunaren mitoa, oroipen historiko konpartitua, kultura amankomunaren elementuak, “lur” jakin batekiko lotura, eta nolabaiteko elkartasuna kideen artean. “Nazio” hitzaz ere giza-populazio jakin bat adierazten dut, baina lurralde historiko batean bizi, eta mito nahiz oroipen historiko amankomunak, masa-kultura publikoa, ekonomia amankomuna eta kide guztientzako eskubide eta betebeharrak legal berberak dituen (Smith 1991).

Definizio horietan garbi ikusten da etniak eta nazioak ez direla gauza berbera, eta kontzeptualki hurbil egon arren zenbait dimentsiotan bereizi egin behar ditugula. Historikoki nazioa etniaren azpibariatate eta garapen mota bat da, baina garapen hori ezin da nolabaiteko progresio-lege eboluzionistarekin parekatu, ezta nahitaez bete beharreko edo itzulezinezko sekuentziarekin ere. Etnia kultur komunitate historikoa da; nazioa, berriz, masa-kultura publikoa, lurralde historikoa eta eskubide legalak dituen komuni-

tatea da. Beste hitz batzuetan esanda, nazioa ere komunitatea da, baina hurbiltasuna eta dimentsio kulturalak azpimarratu beharrean, beste alderdi batzuk nabarmentzen ditu: lurraldea, hezkuntza eta legeak; eta aldi berean etniaren mitoequin eta oroipen kultural zaharrekin dituen loturei eusten die.

Horrela sortu ziren Mendebaldeko nazio zaharrak. Haien etnia aristokrata “lateralak”<sup>3</sup> estatu burokratiko indartsuen bidez sendotu, piskanaka estratu berriak eta inguruetakoa lurraldeak bereganatu, eta mendeetan zehar identitate nazionalak eraiki zituzten, muineko etniaren oroipenetan, mitoe-tan, sinboloetan eta balioetan oinarrituz. Baina “sortutako” nazio deitzen diren horiek ere –Eslovakia, Finlandia eta Israel, besteak beste– historia luze samarra duten nukleo etniko esanguratsuetan oinarritzen ziren. Beste zenbait adibide berriagotan, Eritrea eta Palestinaren kasuetan bezala, erlijioek eta/edo hizkuntzek populazioa zatitu egiten badute ere, gaur egungo belau-naldiek badituzte zenbait tradizio, sinbolo eta oroipen beren euskarri nazionalak eraiki ahal izateko –nahiz eta ikusteke dagoen zeinen sendo suertatuko den halako oinarri etnikoa– (Smith 1986).

Hemen hiru gai nagusi planteatzen dira. Lehena, nolana eta noiznahi gertatzen dela ere, etnogenesisia dela gerora sortuko diren identitate nazionalen oinarria –nahiz eta identitate horrek beste zenbait etnia edota etnia-zati ere barnesartu–. Bigarrena, identitate nazionalaren oinarria etnizitatea izan arren, gerta daiteke (eta askotan gerta-

tzen da) identitate hori beste talde etniko batzuez edota horien zatiez osatzea, eta horrela nazioak bere jatorri etniko soila gaindi dezakeen identitate zibikoa bereganatzea, Suitzako adibide ezagunak erakusten duen moduan.

Hirugarren eta azken gaia hauxe dugu: noiznahi eta nolana forjatzen dela ere, identitate nazionala sendotu ondoren oso zaila edo ezinezkoa dela hura ezabatzea (hori erabateko genozidiotik hurbil legoke), zeharo indar handia hartzen duela estatuarteko ordenan, eta maiz gatazken leherketapuntu bihurtzen dela. Hiru horiek dira, beraz, identitate nazionalak elkarmenpekotasun hazkorreko mundu honetan betetzen duten rola ebaluatzerakoan gogoan izan behar diren puntuak.

### **3. Desberdintasun politikoak eta etnohistoria desorekatua**

Orain arte esandakoaren arabera ez da berrikuntza handirik gertatu erupzio etnikoen eta gatazka nazionalisten garaiotan. Lotura etnikoen indarra eta identitate nazionalaren grina kontuan izanik, ez luke harriztekoa izan behar nazionalismo etnikoak aldizka-aldizka berpiztea.

Baina XX. mendearen amaieran berpizkunde horiei garrantzia eta urjentzia handiagoa eranstean dieten beste bi faktore daude. Lehena, gero eta kontzientziazio maila altuagoa dagoela etnien arteko desberdintasun politiko eta ekonomikoen inguruan. Hori, munduko zati diferenteak lotzen dituzten masa-komunikabideen eta

---

3. Lateraltasunaren kontzeptua historiografia sozial angloamerikarrean erabiltzen da, gizarte talde batek boterea izan arren “zentratuta” ez dagoela adierazteko. Zentratuta egoteak, berriz, esan nahi du taldeak bere etniaren balio kulturalak nazioan proiektatu, eta espazio horren kontrol legala eskuratzen duela. Hori egiten ez duen bitartean, taldea “lateral” dela esaten da, baina ez marjinatua, ezta zapaldua ere (Itz. oh.).

kapitalismoaren, merkataritzaren eta lan-merkatuen rol intrusiboaren ondorio da, oso botere-maila desberdineko estatuetan bizi diren biztanleei derrigorrez konturarazten dietelako zein den euren lekua estatuarteko eta nazioarteko hierarkian. Horren aurrean perzeptzioak bi motatakoak izan daitezke: *atimia*<sup>4</sup> eta dependentziazkoak, edota garapen desorekatu eta txirotasunezkoak. Afrika, Asia eta Latinamerikako hainbat estatutako biztanleen ezintasun militarrek eta politikoak alde batetik, eta ingurugiroa, merkataritza, armen kontrola eta migrazioa bezalako gaien inguruan prozesu politiko globaletan eraginik izateko aukera urriek bestetik, oposiziozko sentimenduak sortarazten laguntzen dute, “gu –haiek” antagonismoa bultzatuz, eta horrek euren baliabide kultural eta sozialetara itzularazten die, identitate nazionalaren sentimendua indartuz kanpotar boteretsuen aurrean.

Bigarren faktorea baliabide kulturalen banaketa desorekatua litzateke, edo zehazkiago esanda, etnohistoriaren garapen desorekatua. Azken kontzeptu horrek adierazten duena nork bere komunitatean jaso –edota berez dituen– tradizio historikoen zabalasuna eta sakontasuna da, historiagile profesionalen ezagupen historiko objetiboagoari kontrajarriz. Zenbait komunitatek oroipen eta tradizio historikoz osaturiko multzo aberats eta ongi dokumentatua duten bitartean, beste batzuek oroipen lainotsuak eta tradizio ahulak besterik ez dute. Ia beti tradizio etnohistorikoen diferentzia horiek (ahozkoak eta idatzizkoak) lotuta daude komunitate eta kategoria etnikoen baliabide kulturalen mailekin (hizkuntz garapena, literatur lorpenak,

alfabetizazioa, eskolaratzea, hezkuntza klerikala, garapen eta herentzia artistiko eta musikala, eta abar). Koerlazioa edota nolabaiteko lotura izan dezakete, baita ere, garapen politiko eta ekonomikoarekin, eta beraz, goian laburki aipaturiko estatu eta komunitateen arteko desberdintasunekin. Ziur aski lotura estua dago bi faktore hauen artean: alde batetik erresumin ekonomiko nahiz politikoa eta nazio nahiz estatu indartsuagoen aurkako erresistentzia, eta bestetik atzerapen kulturala izatearen sentimendua, iragan etniko bakar baten birraurkikuntzak eragindako superioritate moralaz lagundua. Horren adibide ditugu, esate baterako, XIX. mendeko eslavofilo errusiarrak, eta beste modu batean, Mexikon 20ko eta 30eko hamarkadetako iraultzaondorengo erregimenen nazionalismo kultural mestizoa. Bi kasu horietan etnohistoria aberatsa zuten, berreskuratzeko modukoa. Beste zenbait kasutan askoz korapilatsua goa izan da antzinate baliagarriaren bilaketa. Finlandian, adibidez, iragan etnikoaren kontzientzia elikatzerakoan mitologiak –*Kalevala*-ren legendek– indar handia izan zuen, birraurkikuntza historikoez edota arkeologiak adinako, bederen. Zimbabwe eta beste zenbait Sahara-azpiko estatu afrikarretan maiz zaila izan da belaunaldi gutxi batzuk baino urrutirago joango den iragan etniko erabilgarria aurkitzea; hala ere Zimbabwe Handiko aurriak bezalako egiturek “gabezia nazional” hori nolabait konpentsatu egiten dute (Hobsbawm 1990).

Etnia herrikoi edo demotiko bertikalek<sup>5</sup> maiz euren baliabide kulturaletara eta tradizio etnohistorikoetara jotzen dute politika eta ekonomia alorreko

4. *Atimia* hitza itzultzeko ‘denboraren erritmotik kanpo’ egotea edota ‘denborarik eza’ bezalako irudiak erabil ditzakegu hemen, baina beti ere ikuspuntu erlatibo batetik, hau da, konparaketa egiteko, denbora-erritmo desberdinaz hitz egiten ari garela adierazteko (Itz. oh.).

ahultasunak orekatzeko eta atzerapen teknologikoa konpentsatzeko. Badirudi botere kulturalera jotzen dela botere ekonomiko eta politikorik eza konpentsatzeko. Eta neurri batean estrategia bideragarria da nazionalismoaren premisa kulturalaz gainezka dagoen mundu honetan.

#### 4. Globalismoa eta elkarte erregionalak

Baina bada oraindik mundu modernoaren beste ezaugarri bat nazionalismo etnikoak hainbeste lekutan leherztearen zergatia ulertzen lagun deza-keena; oraingoan XX. mendeko bigarren erdialdearekin lotuagoa dago. Mailarik sinpleenean “demostrazio efektu” globalaz ari gara; efektu horren ondorioz nazionalismo etniko baten arrakastak besteen eskakizunak indartu egiten ditu. Beste maila batean, estatuen arteko lehiek talde etnikoen eskaerak eta kanpainak bultzatzen dituzkete auzokide diren estatuetan: estatu lehiatzaileen baliabide eta giza-potentzial guztiak erabiltzeko beharrak bultzatu egiten dio estatu zentralizatuari lehen ukitu gabe utzitako bizitza sozial eta kulturean sartzen, eta horrek deskontentu etnikoa eta/edo erregionala eta protestak eragiten ditu. Bestalde, kapitalismoak etnia jakin batzuk susper ditzake besteen kaltetan, arrazoi historikoak, demografikoak edo bestelakoak direla medio (Gellner 1983).

Baina komunikabide globalen hazkuntza izan da mundu zabaleko etnien baliabideak mobilizatzea eta sare kultural eta linguistiko sendoak eratzea ahalbidetu duena. Ordenadore bidezko

informazioaren teknologiak eta telekomunikazioek aukera nabariak eskaini dizkiete talde txiki, ahul eta zokortuenei –etniko barne– elkartzeko eta beren premia eta eskaerak entzunarazi eta sentiarazteko. Hortxe dugu, hain zuzen, batasuna edo fusioa eragin beharrean zatiketa etnikorako baldintzak sortzen dituen joera global baten adibidea masa-komunikazioei dago-kienez.

Garapen horiek eragin handia dute une honetan beste joera politiko garrantzitsu batean ere, elkarte erregionalak sortzeko joera zabalduan, alegia. Elkarketa-motak desberdinak dira. Batzuk batik bat ekonomikoak dira –Europako Ikatz-Altzairuen Elkar-tea, adibidez–. Beste batzuek helburu politiko nabarmenak dituzte, Arabiar Liga edota Amerikar Estaturen Erakundeak, kasu. Munduan zehar erakunde erregional bat baino gehiago sortu da estatuen arteko elkarlana segurtatzearen alor ekonomiko eta/edo politikoan, eta zenbait kasutan dimentsio kultural nabarmena dute. Eta hori, noski, ez da gauza berria. XIX. mendean zenbait saio egin zituzten eslavieraz edota turkiarrez mintzo ziren estatu eta komunitateak elkartzeko; eta antzeko zerbait esan daiteke Liga Pangermaniarrari buruz. Gaur egun erakunde panafrikar eta panarabiarretan indar berdintsua dute lotura kulturek eta helburu politikoek. Eta gauza bera esan zitekeen iraganeko eta gaur egungo paneuropeismoari buruz ere (Mayal 1990).

Egungo masa-komunikabideen izaera dela-eta, halako “pan” nazionalismo kulturen aukerak askoz aberatsagoak dira une honetan iraganean

---

5. *Bertikal* hitza antropologiaren alorrekoa dugu batik bat, eta botere handiko agintarien menpean bizi diren taldeak definitzeko erabiltzen da, maiz leinu jakin bat eta balio sinboliko nabarmenak dituena (Itz. oh.).

baino. Argumenta daiteke “pan” mugimenduen porrota, hau da, batasunaren helburu politikoak ez lortzea, kultur mailan izandako hutsuneetatik eratorri dela, eta hutsune horiek komunikazio-teknologiaren egoera atzeratuagoaren ondorio direla. Orain arte ez da izan oinarri materialik benetako “pan” mugimenduak eta erregio-erakundeak esistitu ahal izateko, baina orain bai; eta horrexegatik espero dezakegu mugimendu eta erakunde horiek, azkarago edo geldoago, ugaritzen ikustea, tradizionalagoak diren nazionalismo etniko edo estatuen eta nazioen kaltetan.

## 5. Europa versus Nazioa?

Horixe da, zehatz-mehatz, hainbat europeistaren argumentua, estatu nazionalaren gainbehera, eta horrekin batera Munduko Gerra biak bezalako guda nazionalistak sortarazi zituzten baldintzen desagerpena aurrikusten eta desio dutenen argumentua. Haien iritziz “Europa sortzeko” arrazoi nagusia ez da inoiz onura ekonomikoa izan, Europan gerra berriak pizteko aukera guztiak ezabatzea baizik. Eta, noski, Europan gerra “elkarsuntsitzaileak” saihestu ez izanaren errua (Jugoslavia ohian ikusten dugun bezala, baina baita Moldavian eta Kaukasoetan ere) faktore honi egotziko liokete: defentsa eta kanpo-politika amankomuna izango duen estatu europar baturantzako benetako aurrerapen bizkorrik ez egiteari.

Arazoa hemen zera da, aurrerapenik eza eta segurtasun politika amankomunak garatu ezin horretan faktore kulturalak interesek adina garrantzia dutela, hau da, Europako estatuaren aldetik norberaren interesei buruzko pertzepzio kontrajarriek adina indar dutela Europako etnia eta nazioen arteko diferentzia kulturalak eta tra-

dizio historikoek. Zirkulartasun saihestezina sortzen da argumentu horretan: alde batetik Europako nazioen arteko diferentzia kulturalak bizirik irauteko arrazoia Europako herriak batu eta homogenizatuko duen aginte zentral indartsurik ez izatean datza, baina aldi berean halako aginte zentralizatu eta bateratzailerik ezaren arrazoia neurri handi batean diferentzia kultural eta historiko horien sakontasunean aurki daiteke. Hala ere, hori arazoa oker planteatzea eta Europako historiaren ezaugarri garrantzitsu bat kontutan ez hartzea litzateke. Ikusi dugun bezala, ez da zaila norbanakoak identitate bat baino gehiago eskuratzea eta komunitate bat baino gehiagoko kide izatea. Gutxitan sortuko dira gatazkak identifikazio maila horien artean. Sortzen direnean, hala ere, garrantzitsuak dira, eta gero itzuliko naiz gai horretara. Baina gizaki gehienak zoriontsuak dira identitate bat baino gehiagorekin, etnia edota nazio baten eta europar komunitate zabalagoko kide izatearekin.

Eta hori erraztu egin da, Europako kulturetan badiarelako elementu bateratzaileak, hau da, Europako komunitate eta estatuaren kultur esperientzia ugari aberastu dituzten tradizio kultural eta historiko indartsuak, esate baterako Lege Erromatarra, filosofia eta zientzia greziarra, etika hebraitarra eta kristau-teologia, ondorengo Errenazimendua eta Ilustrazioa bezalaxe. Nola edo hala, kultur tradizio horiek kontinente zaharreko bazter ugaritan sustraitu dira, eta “kulturen familia” europarra izenda daitekeena sortu dute, Europako komunitate eta estatu bakoitzaren egoerara egokitu diren tradizio kulturalen eta diskurtsoen familia, alegia.

Hala ere, funtsezko galdera bat gertatzen da erantzuteke: noraino sorta-

raz dezake halako “kultur familia” bategen europar identitatearekiko konpromezua eta irrika Europako biztanle gehienengan? Noraino, beraz, hitz egin dezakegu identitate europar indartsu eta sustraituaz, hau da, identitate nazional atrintxeratuekin lehiatzeko edo elkarbizitzeko gai izango den identitate europarrak? Joera horren alde bultzatzen duten baldintza globalak hor daude; Europako kulturen historiak eskainiriko abantaila ere hor dago; baina hala eta guztiz ere, badirudi oraindik tarte sakona eta nabarmena dagoela Europaren batasun politikoa (eta ekonomikoa) lortzeko asmoen eta benetako identitate kultural europarraren garapenaren artean, sakonki sustraituriko afiliazio nazionalekin kontzientzia herrikoian eta leialtasunean lehia dezakeen identitate hori oso urruti baitago.

Politika eta negozioetako eliteek ez dute nahikoa gai honetan beren buruak konprometituz eta besteei aurrea hartuz bidea erakustearekin; Danimarkaren adibideak frogatu duenez, horretarako oinarri askoz sendoagoa behar da, bai konpromezu eta bai grina mailan ere, nazionalismoak beti esnarazi izan duena bezalakoa, alegia. Une honetan, beraz, galdera hau planteatu daiteke: konpromezu hori norberak sortarazi behar al du, ala bere kasa “hazi” arte itxarotea komeni al da, edozein talde-identitate eta komunitate eratzeke behar diren baldintzekin batera harmonian hazi arte?

Nire iritziz, “entitate nazional edota supranazionalak sortzeko” saioek aukera urriak dituzte gizarte eta kultur mailan arrakastarik lortzeko. Nazio-gaindikoinstituzioak eta batasun ekonomikoa nahiz politikoa sor daitezke, noski, Bismarck-ek estatu germaniarrekin egin zuen bezala. Baina maiz aipatzen den adibide horrek begibista-

ko akatsa du: hizkuntza eta oroipen historikoak, jatorri etnikoei buruzko mitoak bezalaxe, estatu germaniarretako biztanleentzat batasun eragile ziren; faktore horietatik, ordea, “Europako” herriak zatitu egiten dituzte.

Beraz, nahiz eta zenbait tradizio kultural eta historikok Europako herriak eta estatuak bateratzen dituzten, “Europak” ez dauka oinarri etniko segururik, oroipen historiko, mito, sinbolo, balio eta antzeko elementu amankomunezko oinarri garbirik. Eta dituen gutxi horiek, adibidez Erdi Aroko kristautasuna (Katolikoa? Ortodoxoa?), edota Inperio Erromatar Santua, jadanik azpijanda daude (inperialismoa dela-eta) edo bestela ahultzten ari dira (sekulartasun hazkorragatik). Dena dela, kontua da Europako herri askorentzat elementu amankomun horiek ez dutela ezertarako balio. Zer-nolako interesa izan dezake Frederick Barbarossak hiritar ingeles edota frantses modernoentzat, daniarrak edota poloniarrek ez aipatzearen? Meza katolikoak esanahi handirik izan al dezake luterano alemaniar edota suediarrentzat, edota ortodoxo greziarrentzat, denbora luzez Europako zenbait estatutan bizi izan diren judutarrak edo ijitoak ez aipatzearen? Ez dirudi sinbolo eta memoria horiek izango direnik Europako herrien leialtasun europarra *esnartziko* dutenak.

Europaren etorkizun ezezagunen bat izango ote da, orduan, herri horien sakrifizioak eta bizitza eskatuko duena, halakorik behar izanez gero? Berritoren denboraren edo agian belaunaldien iragaitzak soilik sortaraziko ditu eurogenesirako baldintzak. Denbora luzez bultzatu beharko dira sentimendu europarrak benetako kultur identitate kolektibo europarrak



hitz egiten hasi baino lehen, hots, Europako biztanleen gehiengoak sakon-sakonetik onartuko duen identitateaz mintzatu baino lehen.

Gauza batez egon gaitzke ziur. Etorkizun hurbilean identitate europarra ez da indartuko jadanik esistitzen diren identitate nazionalen kaltetan, nolabaiteko “zero-batura” erlazio batean. Identifikazio-maila desberdinek, edo James Coleman-ek (1958) dioen bezala “leialtasun zirkulu zentrukideek” esistitzen jarraituko dute, bata bestearen barnean. Oraingoz, ordea, identifikazio-maila etnikoek eta nazionalen izango dute lehentasuna, eta biztanlegoarentzat askoz biziago eta hurbilago izaten jarraituko dute, “Europa” bezalako identitate erregional abstraktuago, lainotsuago eta maila altuagokoak baino.

Hori guztia azken hamarkadetan emandako elkarrekintza baten ondorio da, hots, globalismoaren eta nazionalismoaren indarren arteko elkarrekintzaren ondorio, bateratze eta zatitze korronteen artekoarena. Alde batetik elkarte erregionalen eta erakunde globalen gorakada dugu, masa-komunikazioen eta informazio-teknologiaren hazkuntza esponenzialaren ondorioz gertatutakoa. Beste aldetik, komunika-

zio-sistemen aurrerapen berberak aukera berriak sortzen dituzte gizakiekategoria eta talde baztertu eta zapalduak (sexu, erregio, etnia edo erlijioaren arabera) mobilizatzeko eta beren eskaerak entzunarazteko. Orain antolaketarako azpiegituraz hornitu dira, eta badute iritzi publikoan eragina izateko gaitasunik. Aldi berean, desoreka politiko eta ekonomikoek, eta baliabide kulturalen zein tradizio etnohistorikoen maila desberdinek ez diote uzten komunitate bakoitzari bere kultura zaintzen eta kideak politizatzen. Horrexegatik sortzen zaizkie korrante “pan” nazionalistei halako erresistentzia nabarmenak mininazionalismoen eta separatismo etniko ugarien aldetik. Joera kontrajarrien eta garapen desorekatuen une arriskutsu horretan bizitzen ohitu behar du, hain zuzen, Europaren aldeko mugimenduak. Garapen horiek –eta batez ere nazionalismo etnikoen gorakada– kontutan ez hartzea edota fenomeno horiei garrantzia kentzea zera litzateke: elitearen ekonomiak eta politikak identitate herrikoia ordezkari dezaketela imajinatzea, hau da, beste faktoreen konfluentziarik gabe edozein komunitateri oinarri iraunkorra eman diezaiokkeen identitate sozial eta kultural herrikoia ordezkari dezakeela imajinatzea.

## Erreferentziak

- Anderson, Benedict, (1983): *Imagined Communities*, New Left Books, Londres.
- Barth, Fredrik, ed., (1969): *Ethnic Groups and Boundaries*, Norwegian University Press, Oslo.
- Coleman, James S., (1958): *Nigeria, Background to Nationalism*, University of California Press, Berkeley, C.A.
- Gellner, Ernest, (1983): *Nations and Nationalism*, Blackwell, Oxford.
- Hobsbawm, Eric J., (1990): *Nations and Nationalism since 1780*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Mayal, James, (1990): *Nationalism and International Society*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Smith, Anthony D., (1986): *The Ethnic Origins of Nations*, Blackwell, Oxford.
- Smith, Anthony D., (1991): *National Identity*, Penguin, Harmondsworth.